


MATXISMO EZKUTUA, *Egunerokotasunean agehian*



IKASLEEKIN LANTZEKO
DOSIERRA



KOKAPENA

Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren hezkuntza eta feminismo ildoen indarkeria matxistaren adiera ezberdinak azaleratzeko dosierra da honakoa. Helburua heziketarako lagungarri izan daitekeen ikas materiala sortzea eta partekatzea da. Horretarako, hezkuntza arautuko etapa ezberdinetan egingarriak diren zenbait ariketa jarri nahi ditugu hezitzaile eta eskolen eskura. Modu horretan nahi dugu kontzientziazioa areagotu, berdintasunetik harago zapalkuntzak ikusarazi eta feminismoan jendartea hezteko erronka xume zein handiarekin.

Genero indarkeriaren aurkako eguna dela-eta, asko dira herrietan antolatutako ekintzak. Zentzu horretan, ondorengo lan tresnak haur, gazte, familia edota hezitzaileengan eragitea du xede.

Goazen errora: nola mamitzen dira zapalkuntzak egunerokotasunean? Indarkeria matxistaren adierak mota askotakoak dira, eraso fisiko zein psikologikoez gain, gure jarrerak areagotu edota urrituko dute genero indarkeria. Horregatik, hain zuzen, Aiaraldea -Euskal Herria edo mundua- zapalkuntzarik gabekoa izate bidean, garrantzitsua deritzogu adin tarte ezberdinetan jarraian planteatzen diren ariketa eta gogoetetan murgiltzeari.

Dosier hau martxoaren 8an zabaldu genuen baliabide sortaren jarraipena da. Bizitzak erdigunean jartzeko beharraz eta sexu genero sistemak duen eraginaz mintzatu ginen ordukoan; eta zaintza lanak birplanteatzeko premia azaleratu genuen. Dosier honetan emakumeek jasotzen dituzten egunerokotasunezko zapalkuntzez arituko gara, modu ezkutuan jasotzen duten indarkeriaz hain zuzen ere.

HELBURUAK

Lanabes honen helburua indarkeria matxistaren adiera ezberdinak ikusaraztea eta horiei aurre egiteko baliabideak eskaintzea da. Ondorengo ariketen bidez errealitate eta zapalkuntza ezberdinei hitza jartzea bilatzen du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak.

Egitasmo hau Aiaraldea Ekintza Faktoriako (Kokoriko Hezkuntza Faktoria) eta feminismo lantaldeko kideen artean garatu da. Bazkide eta boluntarioei esker, hainbat proiektu ditu martxan Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak: Aiaraldea hedabidea, Kokoriko Hezkuntza Faktoria, Komunitateari bideratutako ildoak (elikadura burujabetza, euskalgintza, feminismoa...).

Kooperatibari buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu ondorengo helbidera jo: <https://aiaraldea.eus/bereziak/aiaraldea-ekintzen-faktoria>

MARKO TEORIKOA

1. Sarrera

Generoa, eraikuntza kulturala da. Bitan sailkatzen du jendartea: emakumea eta gizona. Ondorioz, bestelako generoak alboratu edo gutxietsi egiten dira (transexualak eta beste). Txiki txikitatib egindako banaketak pertsonak bitan sailkatzeaz gain, generoetako bati botere eta eskubide gehiago ematen dizkio, gizonezkoei, hain zuzen; eta beste generoak hauen azpitik kokatzen ditu, boterea kenduz eta eskubideak ukatuz. Beraz, generoaren eraikuntzak, zapaltzaile eta zapaldu sistema bat sortzen du.

Botere banaketa desorekatu honetan kokatzen da genero indarkeria; edota indarkeria matxista. Indarkeria matxista kontzeptua hobesten du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, biolentzia mota hau ez duelako berez generoak sortzen, matxismoak baizik. CEDAWk (Committee on the Elimination of Discrimination against Women) horrela definitzen du: “Emakumeen aurkako indarkeria generoan oinarritutakoa da, eta horren ondorioz min fisiko, sexual edo psikologikoa sortzen da edo sor daiteke. Hor daude mehatxuak, hertsadura eta bidegabeki askatasunik gabe uztea; eta hori guztia bizitza publikoan zein bizitza pribatuan”.

Hortaz, emakumeen kontrako indarkeria matxistak, hasiera hasieratik egiten den genero bereizketa horretan du muina. Horregatik, tratu txarrak eta eraso sexualer harago doan arazo sistemikoa da, patriarkatuaren tresna indartsu-
netariko bat baita, zeinaren bitartez emakumeenganako kontrola lortu nahi den.

*Sistema kapitalista heteropatriarkalak
egonkortasuna lortzen du jendartearen erdiak
beste erdia zapaltzen eta kontrolatzen duelako*

Sistema Kapitalistak, patriarkatuaren beharra du jendartea kontrolatzeko, baina patriarkatuak ez du kapitalismoaren beharrik, askoz ere errotuagoa dagoen zapalketa da (XX eta XXI. mendeko sistema sozialistak ere patriarkalak izan dira). Sistema kapitalistak jendartearen erdia bakarrik kontrolatu behar du, gizonezkoa. Izan ere, hauek arduratzen dira beste jendartearen erdia kontrolatzeaz. Baina, batzuk goian eta beste batzuk behean egoteko, boterea dutenek eta goian daudenek indarrez mantendu behar dute botere

Adibidetara ekarrita, ondorengo egoeretan antzeman daiteke indarkeria matxista:

HEDABIDEETAN: emakumezkoak ikusezin bilakatzen dira (aditu gisa gutxitan ateratzen dituzte, kirol trataeran zeharo alboratzen dira...). Publizitateak, bestalde, objektualizatu egiten ditu (gizonezkoen desirak asetzeko jarreretan azaleratzen dituzte bezeroak erakartzeko iragarleek sarritan, edota etxeko zereginetan -garbiketa, janaria...- zaintza lanetan andreak kokatzen dira gehienetan), kontsumitzaile potentzialak bilakatzearaz gainera.

KULTURA ETA TRADIZIOETAN: emakumeak baztertu egiten dira. Axuri beltzaren dantza, Hondarribiko alardea... Betiko tradizioak boteredunen erreflexu bilakatzen dira, baina tradizio berriek ere emakumea bigarren sexutzat jotzen dute. Egia da, ordea, zorionez, geroz eta kontzientziario gehiago egonik, parekidetasunaren aldeko hautua indarra hartzen ari dela, baina oraindik benetako aldaketa heldu arte puska handia falta da.

HEZKUNTZAN: Bigarren kategoriako biztanletzat erakusten dira emakumeak. Hezkuntza formalean (eskoletan) eta ez formalean ematen diren rol banaketek zehazten dute identitate generikoa: zer izan behar dugun, zer izan nahi dugun beharrean. Edota, zer izan behar dugun gustuko, eta zer ez. Ikasketa materialean ere agerikoa da bazterketa. Historian, filosofian... modu berean lantzen al dira emakume zein gizonezkoak?

HIZKUNTZAN: Hizkuntzak ez dira sexistak, bai ordea bere erabilerak. Euskararen erabilera sexista egiten dugu, hitzetan gizonezkoa kokatuz mundua deskribatzeko tresna moduan. (gizarte= gizonen artean, herritar= herriko arra...). Gazteleran bezala euskararen ere maskulino generikoa erabiltzen da. Horrela, batzuetan ikusezin bihurtzen dira emakumeak; eta izendatzen ez dena, ez da.

LAN MUNDUAN: Enplegurik gabeko langileak izateaz gainera, ez da erraza emakumezkoentzat erabakiak hartzen diren tokietara iristea "kristalezko sabaiari" esker. Lanik prekarioenak, emakumezkoenak izaten jarraitzen dute. Eta zaintza zein hezkuntza zereginak, zer esanik ez.

ERLIJIOETAN: Erlijioaren erabilerak eta irakurketek emakumeen gorputzen gaineko erabakiak hartu nahi dituzte, askatasun sexuala eta erreproduktiboa mugatuz, edota abortoarena bezalako lege erreformak proposatuta. Kultura eta erlijio ezberdinetan emakumeei egotzitako rolek ere genero zapalkuntza azaleratzen dute.

Hauek eta askoz gehiago dira emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten diren bortizkeriaren erakusle. Hortaz, Genero indarkeriarekin amaitu nahiko bagenu errora joan beharko ginateke; eta sistema heteropatriarkalak sortutako binarismoarekin bukatu. Indarkeria ez da azaleko konponbideekin amaituko oso errotua dagoen sistema bat delako, egunerokotasunean indarkeriarekin bizitzen ikasi dugu.

Indarkeriak adiera ezberdinak izaten ikasi du eta zapaltzaile zapaldu sistema hau mantentzeko eta sistemikoa bihurtzeko bide ezberdinak topatu ditu, kasu askotan guztiz onartua izateraino.




Izebergaren teoria

Lehen aipatu bezala, indarkeria ezkutukoa edota agerikoa izan daiteke. Sotilak edo ikusezinak diren adiera guzti horiek dira ageriko biolentzien oinarria. Amnistia International-ek izebergaren teoria sortu zuen genero indarkeria azaleratzeko. Goiko puntan daude ageriko erasoak: erailketak, bortxaketak, torturak, kolpeak... Uraren azpian, berriz, bestelakoak daude, ezkutuan: hizkuntza edo publizitate sexista, txiste matxistak, hizkera eta harremanak izateko modua, emakume izateagatik soldata txikiagoa izatea...

Izerberga bezala, ur azpian, ezkutuan, dauden indarkeria mota guzti horiek gabe ez ziren bestelako biolentzia kasuak egongo. Pentsa, gaur egun kantitatez askoz altuagoak dira emakumeek bizitzen duten indarkeria sotil edo ezkutuan kasuak agerikoak direnak baino. Izerbegek bezala, indarkeriak oinarri sendo eta gogor bat du, eta indarkeria adiera guztiei merezi duten garrantzia eman behar zaie. Txiste matxista baten aurrean barre egiten denean, boterea ematen jarraitzen zaio gizonezkoari. Indarkeriaren intentsitatea geroz eta altuagoa denean agertzen dira kolpeak, irainak eta azkenik erailketa matxistak. Hilketek larritasun maila oso altua duten arren (eta kasuak asko diren arren, nahiz eta erailketa matxista bakarra zinez larria litzatekeen), askoz gutxiago hitz egiten da mota honetako indarkeria sotilaz. Ondorioz, ikusezinagoak dira, egunerokoaren parte bilakatu ditugulako. Hala, normalizat jotzen ditugun jarrerak birproduzitzera eramaten gaituzte.

Intentsitate baxukotzat jotzen diren heinean gizarteak ez dio garrantzirik ematen, normalizatuak daude. Baina matxismoa zein heteropatriarkatua mantendu eta indartu egiten da eraso horiekin. Horregatik da garrantzitsua izebergaren teoria ezagutzea eta normalizatua dagoen indarkeria kanporatzea, hau da, egunerokoan bizi ditugun egoerak azaleratzea. Zumaiko Gazte Asanbladak infografia bidez kokatu zituen biolentziaren adibide desberdinak:



2. Mikromatxismoa edo matxismo erkutua

Mikromatxismo deritze matxismoa oinarri duten eguneroko zapalkuntza matxistei. Mikro hitza Michael Foucaultek, filosofo, historialari eta psikologo frantsesak erabili zuen azalekoa dena adierazteko. Mikro matxismoek, beraz, lkusezinak direlako hartu dute “mikro” adiera, baina horrek ez du esan nahi txikiak direnik, edota garrantzia berbera -hots, handia- ez dutenik. Edo, are larriagoa dena, ondorio larririk ez dutenik.

Luis Bonino Mendez autoreak sortu zuen “mikromatxismo” kontzeptua, indarkeria ikusezinak ikustarazteko. Indarkeria eta menperatze praktika desberdinetan, batzuk ikusgarriak eta sozialki gaitzetsiak dira; baina beste batzuk izen gabeak eta aitortza zein ondorio gabe gertatzen dira. Alegia, eguneroko jarrera normalizatu eta naturalizatuak dira, gehienetan justifikatuak eta legitimatuak.

Luis Boninok mikromatxismoak lau esparrutan banatzen ditu:

ESPARRUA	AZALPENA	ADIBIDEAK
FUNTZIONALA	Gizonek erabiltzen dituzten kontrol jarrerak dira, emakumeen gain erortzeko zaintza lan guztiak. Kasu hauetan ez gara fijatu behar egiten den horretan, gizonek egiten ez dutenean baizik. Gizonezkoek egiten ez duten zaintza lanen karga emakumezkoengan uzten da, euren burua zaintzeko indarrak galtzera arte.	“Gizonek etxean LAGUNTZEN dute” (etxeko lanak emakumearen ardurapean utziz) “Maitea gaur garbigailua jarri dizut” (biek arropa zikintzen dutenean)
EZKUTUKOA	Erlazioa dominatzeko gizonak modu sotilean bere pentsamenduak eta jarrerak gailentzen ditu. Horrela emakumeek dituzten intimitate espazioak txikitu egiten dira.	Paternalismoak, isilune batzuk, manipulazio emozionala... ”Isildu, aita lanetik oso haserre heldu dela... eta gauzak bere lekuan behar ditu!”.
HERTSAGARRIA	Koakzio, intimidazio edota botere ekonomikoa baliatuz (zein mehatxuen bidez) emakumeari bere arazoak balizkoak ez direla adierazi ohi zaio. Emakumearen erabakitzeo eskubidea alde batera uzten dute horrelako jarrera matxistek.	Nork du mandoa etxean? Nork hartzen du espaziorik onena? (Gizonezkoek gorputzarekin zein ahotsarekin espazio gehiago erabiltzen dute, aisialdirako denbora gehiago hartzen dute, kontrol ekonomikoa daramate...)
KRISI EGOERATIK ERATORRIA	Gizonezkoak bere ohiko boterea galtzen duenean gertatzen da, emakumezkoak boterea hartu duela sentitzean mutilak. Finean, boterea berreskuratzeko jarrera eta zapalkuntza matxistak dira.	Emakumea biktimizatzea, ukazio jarrera agertzea, txantaia emozionala egitea, erresistentzia jartzea gizonezkoak zeregin edo ardura komunei heltzeko, pena ematea...


Luis Boninok egoera hauek bikote testuinguruan kokatu zituen. Baina, geroz eta argiagoa da mikromatxismoak sistema patriarkalaren indarkeriaren oinarria baldin badira, erlazio mota guztietan eragiten duela, bizitzako esparru orotan: aisialdian, lanean, kalean, etxean, familian, lagun artean...

Nola identifikatu egunerokoan indarkeria matxista ezkutua?

Hona hemen egunerokoan ezkutuko indarkeria matxista identifikatzeko zenbait egoera:

- Emakumeak etengabe epaitu eta kritikatzeari (batez ere itxura fisikoagatik)
- Espazio publikoetan (tabernak, jolas parkeak...) gune gehiena gizonenak hartzea, goprutz edo ahots bidez. Talde handian (gelan, bileretan...) nesken ahotsa gutxitzea.
- Kanpora begirako ekimenetan erreferentziak gizonenak izatea.
- Mutil taldeek kide bat baztertzeari edo iraintzeari berari egozten zaizkion genero rolak ez betetzeagatik.
- Gizonen arreta edo onespena bilatzeko nesken arteko lehia edo gatazkak.
- Arrosa eta urdina, generoaren araberrako mundu eta pribilegioen dikotomia.
- Jatetxe batean kontua gizonari ematea, botere ekonomikoa berak izango balu bezala.
- Lan elkarriketetan emakumeak bere bizitza pribatuaz galdetzea (haurrik duen, ezkondua dagoen...).
- Kotxe tailerretan emakumea ikusezin bilakatzea.
- Emakumea irain moduan erabiltzea (emakume bat bezala korrika egiten duzu).
- Gizonak goraiatzeari zaintza lanak egiten dituztenean.
- Edari alkoholikoa mutilari eskaintzea, eta bestea emakumeak.
- Eskua ematea gizonari eta bi muxu emakumeak.
- Sexuaren araberrako jostailu, arropa edo material banaketa.
- Gizonak hitz egiteko aukera gehiago izatea, edo bere hitza gehiago kontuan hartzea.
- ...

Bistan denez, nonahi eta noiznahi ikus daitezke horrelako egoerak; Ohikoak dira eta normaltasunean erakitzen dira. Hor dago mikromatxismoen arriskurik handiena. Iku-sezin bihurtzen edo normalizatzen ditugun jarrerak ez dira arazo bezala kokatzen, eta beraz ez da ezer egiten hauei aurre egiteko. Ondorioz, emakumeek ez dituzte mikromatxismoen kontrako erresistentzia mekanismoak garatzen, ezta hauen kontrako borroka moldurik erakitzen ere. Eta gizonak, normaltasunez bizitzen dituzte eta ez dute euren jarreragatik inolako ondoriorik pairatzen. Horrenbestez, ez dituzte euren pribilegioak aztertu eta alboratzen.



Mikromatxismoek, beraz, modu sotilean eta jarraikortasunez zapaltzen dute emakumea egunerokotasunean. Hargatik, bestelako efektu negatibo batzuk eragiten dizkio norbanakoari ere:

- Kritika jarraiatik buru argitasunean eta ziurtasunean eragitea, bere pentsamenduak gutxiestea, bizi proiektua txikitzea...
- Neke jarrai eta kronikoa gain esfortzu mental eta fisikoa egitera behartua sentitzeagatik, neke emozionalarengatik eta norberaren bizitza garatzeko zein bere interesak bizitzeko energia gabe geratzeagatik.
- Gai ez izatearen sentimendua, inpotentzia eta autoestimua gutxitzea, norberarekiko segurtasun eza handitzea.
- Botere pertsonalaren gutxiespena, garapen pertsonalean atzeraka eginez edo garapen pertsonala geldituz. Azken finean, askatasunaren limitazioa.
- Nekatua eta sumindua egotea eta motibo jakinik gabe asperraldian egotea.

Zer egin mikromatxismoei aurre egiteko?

Mikromatxismoekin bukatzeko, eskubide, betebeharrak zein aukeren berdintasunean bizi garenaren ideia alde batera utzi behar dugu. Oraindik ere ez gara jendarte parekide batean bizi eta hau zabal hedatu behar den ideia da. Asko dira oraindik genero guztiak berdintasun egoera batean bizi direla uste duten pertsonak.

Berebizikoa da gizon eta emakumeen artean garatu den harreman asimetrikoarekin -zapaltzaile/zapaldu- bukatzea horretarako, ezinbestekoa da emakumeak boteretzea eta gizonezkoak pribilegioak galtzea. Hau esparru ezberdinetan egin beharra dago eta denak alde berdinerantz arraun eginez. Matxismoa oso errotua dago gure jendartearen, denak kutsatzen gaitu. Horregatik, eskolek, aisialdi taldeek, instituzioek, elkarteek... proiektu jarraiak martxan jarri behar dituzte indarkeria guztia eta ezkutukoa den hau ere deuseztatzeko. Gainera lege batzuk aldatu behar dira, eta berriak egin (adibidez, publizitate sexista deuseztatzeko, soldata arrakalarekin apurtzeko, komunikabideetan matxismoarekin bukatzeko...).

Mikromatxismoei aurre egitea ez da lan erraza, baina ez da ezinezkoa. Ezinezkoa da ekintza soil batekin errotuta dagoen sistemarekin bukatu, prozesu luze bat eman beharra dago. Lehendabizi detektatu egin behar dira aurre egin ahal izateko, eta hori izaten da pausorik zailena. Emakumeen ahalduntzea ere berebizikoa da, eta horretarako oso garrantzitsuak dira nesken sareak, azken finean, emakumeen boteretzeaz ari gara, bai maila indibidualean zein kolektiboan. Gizonek, euren aldetik, dituzten pribilegioez hausnartu eta hauek baztertu behar dituzte.


Funtsean, ezinbestekoa da “betaurreko moreak” jartzea eta txikikeriak diruditen horiek detektatzea eta horiek aurre egitea egunerokotasunean, gogoratu txikieria deitzen diegun horiek direla izebergaren oinarria. Gai honetaz hitz egiten jarraitu beharra dago, mikromatxismoak ikusgai egiteko.

Indarkeria matxistaren adierak

2016an Aiaraldea hedabidean argitaratutako “genero indarkeriaren ezkutuko piezak” erreportajeaz azaldu gisa, Dominotik “dominiora”, hizki baten aldea dago, baina jauzi handia. Gaur egun ere, hainbat bizitza eta bizi eredu jartzen ditu jokoan emakumeenganako zapalkuntzak. Hausnartzea ere pauso bat izan liteke mugiezinak diruditen piezak iraultzeko. Matxismoa kultura bat da, ikasitakoa, eta jendartean onartua. Egoera eta bizitzak iraultzeko kontzientziazioa areagotzea ezinbestekoa da.

“Horma ikusezinak” dokumentala

2018an “Horma ikusezinak” dokumentala ekoitzi zuen Aiaraldea Ekintzen Faktoriako feminismo lantaldeak, eskualdeko 12 emakumeren bizipenak eta gogoetak barne hartuta. Youtuben dago ikusgai. Bertan, gazteen arteko harremanetan, hezkuntzan, lan munduan, kirolean, hedabideetan, legegintzan edo justizian zein kulturaren emakumeek bizi dituzten indarkeria matxistaren ondorioak kontatu zituzten lehen eskutik zenbait emakumek. Whatsapp edo sare sozialetako jazarpena, zaintza edo heziketa lanetako soldata arrakalak, umedun emakumeen lan kaleratzeak, kirol praktikekin laguntza eta bisibilitate eza eta abar azaleratzen idtu ikus-entzunezkoak.



3. Matxismo erkutua hezkuntzan

Matxismoa sistema patriarkalaren oinarria den heinean, hezkuntzaren eta heziketa prozesuen esparruan ere hainbat adiera berezi hartzen ditu. Oro har, matxismoaren jarrera ugari identifikatu daitezke.

Atal honen helburua ez da egoera guztien zergatietan sakontzea, baizik eta gertatzen diren egoerak azaleratzea, gogoetatik eraldaketa sustatzeko. Izan ere, egoerak azaleratzetik eta ikusgarritasuna ematetik hasten da eraldaketa.

Egoerak azaleratzetik eta ikusgarritasuna ematetik hasten da eraldaketa

A) Haurrak

Genero eraikuntza jaiotzen garen momentutik hazten da. Esan genezake jaio aurretik ere hasten dela, espektatibak eraikitzen baitira jaioko den haur horrekiko. Eskolaratzean genero rolen bereizketa indartu egiten da. Konturatu al zara amantalak zein koloretakoak izaten diren? Edota, komunak sailkatzen ditugun heinean, helduok ere zer nolako eragina dugun bereizketa horretan?

HARREMANTZEKO MODUAK

Garai honetan niaren eraikuntzarekin batera, generoaren araberako banaketak egiten hasten dira. Hasieran talde gisa funtzionatzen dute, eta pixkanaka, bi talde handi osatzen dira. Ematen du gustuek eta afinitateek eragiten dutela, baina, ez da kasualitatea bi talde hauek orokorrean mutilenak eta neskenak izatea. Hots, genero nagusienak (sistema binariotik at kokatzen diren umeei bereizketa eta bazterketa bikoitza jasaten dute).

Are, euren artean generoari ezarritako rolak betetzen ez dituen markatu egiten dute (Atzakalak margotzen dituen mutila, futbolean jolasten duen neska...). Lehen Hezkuntzara pasatzen direnean, aldiz, mutilak espazio gehiago konkistatzen hasten dira; erdigunea eurenganatzeko, batez ere, futbolaren presentzia handitzen denean.

Garatzen dituzten jolasetan ere bada mamia, topikoak behatuta: joko sinbolikotik hasita (neskek familia eta zaintza lanetara jolasten dute, eta mutilek suhiltzaile eta super heroi izatera) patioetako kiroletaraino (neskak sokasaltoan aritzen dira eta mutilak futbolean).

EDUKIAK/ESKOLA

Hezkuntzaren antolakuntza aldetik, ematen edo sustatzen al da bereizketarik? Haurrak direnean hasten dira komunitan bereizten, bai aldatzeko zein txisa eta kaka egiteko ere. Banaketa hau inposatua izaten da, batzuetan irakasleak bultzatzen du; eta beste batzuetan espazioaren antolaketak. Ikas ohituretan ere antzeman daiteke joera: mutilei txisa zutik egiten irakasten zaie, eta neskei eserita.

Edukiei dagokionean, ohikoa da gorputza lantzeko binarismoan erortzea (neskak= alua, mutilak=zakila), bai lantzen diren gaietan eta baita jartzen diren irudietan ere. Irakasleak askotan galdetzen du, esaterako, “zu zer zara neska edo mutila?”. Adibide horiekin bi genero horietan kokatuarazten ditugu pertsonak. Iruditegian, bestalde, gorputza lantzeko orduan neskei sexua adierazteko kolore arrosa edo ile luzea (eta koletak) jartzen zaizkie, eta mutilei ile laburra. Horrela bestelako gorputz eredu eta identitate batzuk alde batera uzten dira, eta genero rola indartu.

Asanbladak egiten direnean ere (edo borobilean esertzean), mutilen ahotsen presentziak protagonismo handiagoa hartzen du, askotan irakaslea konturatu ere egin gabe. Mutilek presente daudela adierazten dute orokorrean: gehiago hitz egiteko joera dute, altuago mintzatzen dira, eta tontakeria gehiago burutzen dituzte arreta zein boterea eskuratzeko.

ADIERAZLEAK

- Binarismoa erakusten zaie (neska eta mutilek haragoko generoak alboratzen dira) eta gorputz heziketa genitalan oinarritzen da
- Ahotsa eta parte hartzea generoaren arabera gehiago edo gutxiago izatea
- Gustuak eta bakoitzaren rola bideratzea (Mutilei dantza, neskei futbola)
- Lagun taldeak generoka bereiztea
- Gustuak eta jolasak joera sinbolikoek banatzen dituzte (ohikoan, mutilek azazkalak margotzeari uzten diote, neskek zaintza lanetara jolasten dute)
- Zeinen ahotsak du presentzia handiena?



B) Gazteak

Adinean aurrera joan ahala bereizketak areagotzen dira. Aurretik emandako egoera guztiak sakondu eta indartu egiten dira garai hauetan. Pubertaroko lehen urteetan bereizketa oso handia da bi generoen arteko gustu eta harremantzeko moduetan.

HARREMANTZEKO MODUAK

Desirei erantzunak bilatzeko garaian, zeharo ezberdina da neska-mutilek hartzen duten bidea edota helburua lortzeko modua. Ikasgelan edo lagunartean nabarmentzeko -desio edo maite dugunaren arreta eskuratzeko-zapalkuntzak baliatzen dira sarritan. Indarkeria horiek intentsitate baxukoak izan daitezke (ahotsa gainjartzea, emakumea gutxiestea, tonua eta espazioaren okupazioa handitzea) baina maiztasuna handitzerakoan (alegia, jarraikortasuna ematen bada) ageriko biolentzia bihur liteke. Kontroletik jazarpenera (biolentzia psikologikora) oso muga txikia dago.

Nerabezarotik oso barneratuta eta errotuta daude harremantzeko moduak, bai aurrez-aurrekoak eta baita birtual edo digitalak ere. Formatu horietan txertatu beharko genituzke sare sozialak, eta instagram, whatsapp zein bestelako programetan ematen diren biolentzia motak: kontrola, "atsegiteko" premia, gutxiespena eta beste. Normalean, itxuragatik baloratuak edo epaituak izango dira gazte horiek, eta horrek euren identitate, autoestima eta ahalduzuean nabarmen eragingo du. Ildo beretik, kontsumitzen dituzten ikus-entzunezkoen erreferentziei ere erreparatu beharko genieke: youtuberrei, telesailatako protagonistei...

EDUKIAK/ESKOLA

Lantzen diren edukietan oso nabarmenak dira gizonaren ikuspuntutik egindako ikas materialak. Androzentrismoa deitzen diogun kontzeptua argi ikusten da ikasgaietan, mundua gizonaren neurrien eta ikuskeraren arabera azaltzen baita liburuetan zein erreferenteetan:

- Lantzen diren zientzialari, filosofo, matematikari edota aditu gehienak gizonetzkoak dira (Selektibitateko filosofia edukietan, soilik gizon filosofoak sartzen dira). Aurrerapausoak eman arren, ikas materialetako irudiak ere genero rolek estereotipatzen dituzte. Historiako liburuetakoa irudietan zaila da ikustea genero rol estereotipatutik aldentzen den pertsona. Edota, matematikako problemetan: Miren erosketak egitera doa, eta Jon pilotan jolasten dago.
- Gorputz hezkuntzan oso agerikoa da bereizketa edukietan, marka ezberdinak eskatzen zaizkie mutilei zein neskei, bai flexibilitatean eta baita indarrean ere... Ez da norbanakoaren ezaugarrien baitan planteatzen ariketa, generoaren arabera baizik.
- Patioan ere bereizketa hau oso nabarmena da. Mutilek espazioaren erdigunea hartzen dute futboleko jolasteko, eta neskak ertzetan kokatu ohi dira.



- Ekintzen antolakuntzan ere, arduren banaketa generoaren arabera egiten da: neskak dekorazio zereginetan kokatzen dira, eta mutilak indarra suposatzen duten ekintzetan. Gainera, mutilen iritziek gehiago balio ohi dute; koordinazio lanak ere hartzen dituztelarik, hau da, ardura edota botere handiagodun eginkizunak.

ADIERAZLEAK

- Patioko erabilera eta antolaketa
- Gauzak egiterakoan ardura banaketa (neskek kartela, mutilek armairuak mugitu)
- Ahotsa eta parte hartzea
- Espazioaren erabilera (Esertzeko modua, espazioaren gorputz erabilera, ahotsaren bolumena...)
- Ikas materialetako erreferentziak (Buruketetan, ikasliburueta irudietan, filosofo zein zientzialarien lanketetan, androzentrismo kontzeptua historian...)

D) Helduak: hezitzaileen eragina

Helduen testuinguruan ere nabarmena da hezkuntzan eta heziketan dagoen bereizketa. Haurren zaintza etapetan (lehenbiziko urteetan) emakumezkoena da langileen gehiengoa. Horrenbestez, zaintza lanak neskengan berresten dira, eredu horiek mantenduz gero. Haurrek txikitatik dituzte zaintza erreferentziatzat emakumezkoak, izan etxe giroan edota eskolakoan. Gurasoen artean ere, umeen bila joaten direnak emakumezkoak dira, batik bat. Egoera guzti horien jabe egitea eta bestelako erreferenteak sustatzea helduon esku ere badago.

Eskolako ardura banaketa eta antolaketarekin jarraituta, eginkizunen arabeko rola indartzen direla bistakoa da: garbitzaile gehienak neskak dira, eta mantenimenduko langileak gizonak (atezainak, kasu).

Hezkuntza etapetako zuzendaritzetan ere agerikoa da desberdintasuna. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan emakumezkoak daude botereguneetan, baina adinean -eta etapa edo zikloetan- gora egin ahala, gizonezkoek hartzen dute erabakimen eta botere gehiena. Irakasle kopurua generoaren arabera aztertuta ondoriozta daiteke hori ere. Horrez gain, arrakala ekonomikoa ere badago: feminizatua dagoen haurren lehenbiziko etapetan (HH, LH) diharduten pertsonen soldata beste zikloetakoa baino baxuagoa da; nahiz eta lanaldi eta nolabaiteko funtzio berdinak eduki.

ADIERAZLEAK

- Arrakala ekonomikoa eta hezkuntzaren feminizazioa haurren adinaren arabera
- Lanen eta arduren banaketa: Nortzuk dira jantokiko zaintzaileak? Eta garbitzaileak? Nor da IKT arduraduna?
- Jai bat antolatzerakoan ardura banaketa

ARIKETAK

Hurrengo lerroetan etapaka propioki diseinatutako ariketa sorta topatuko duzue. Hala ere, adinka bereizitako baliabideak beste zikloetan edota norberaren etapan aplikatu litezke, nahi izanez gero.

Ariketa gehienek hausnartzeko balio dute, eta irakaslearen dinamizazioa garrantzitsua izango da. Zalantzarik izatekotan jarri gurekin harremanetan dosierraren amaieran agertzen den telefono (693855312) edo emailaren bidez (hezkontza@aialaldea.eus).

Helburuak

- Haur eta gazteak feminismoan hezteak
- Emakumeen zapalkuntza sistematikoa ulertzea
- Gizonen pribilegioen inguruan hausnartzea
- Ezkutuan kokatzen den indarkeria azaleratzea
- Emakumeen presentzia erdigunera eramatea

Haur Hezkuntzarako ariketak

1 ARIKETA: EMAKUMEAK IKUSGAI

Ariketa hau egiteko gelako edo eskolako espazio bat aukeratu dugu, emakumeak erdigunera eta argitara ekartzeko. Gune ikusgarria izatea garrantzitsua da, ez egotea ezkutuan.

Behin eremua hautatuta, espazio horri garrantzia emango diogu, hurrekin batera dekoratuz. Haur bakoitzari eskatuko diogu “Beraientzako emakume garrantzitsu” baten irudia egitea. Emakume erreferente horiek muraletan jarriko ditugu. Ondoren, zergatik diren neska horiek inportanteak galdetuko dugu, ezagutza partekatuz.

Irakasleak, bere aldetik, irudi batzuk jarriko ditu, historian eta Euskal Herrian garrantzitsuak diren (eta izan diren) emakumeen lana aitortzeko. Beste aukera interesgarri eta polit bat, zentro bakoitzak bere herriko emakumeen zerrenda egitea eta bertan jartzea da. Euskal Herriko eta munduko emakume hauen irudiak proposatzen dizkizuegu:

Elviria Zipitria

Marie Coulun

Polixene Trabudua

Maialen Lujanbio

Inexa Gazen

Maurizia Aldaiturriaga

ARIKETA OSAGARRIAK

- Pirritx, Porrotx eta Marimototsen MARIMORE kanta ikasi eta abestu
<https://www.youtube.com/watch?v=qp5Gf3cD84E>

LETRA:

*Emakumeak alaiak gara, azkarrek, trebeak, irudimentsuak, langilek eta festazaleak, ausartak,
indartsuak goxoak eta bakezaleak,
eta haserretzen ere badakigu
ummmm!
Marimoreak gara, eta zu?*

*Nahi dudanean modura ibiltzen naiz
Nahi dudanean lekura iristen (BIS)*

*Ni naiz argia. Ameslaria
sorgin sorgina
nahi dudanean naiz atsegina*

*Ni naiz morea, emakumea
herriko plazan
mundua jarriko dut nik dantzan*

*Nahi dudanean modura ibiltzen naiz
Nahi dudanean lekura iristen (BIS)*

*Ni naiz argia. Ameslaria
sorgin sorgina
nahi dudanean naiz atsegina*

*Ni naiz morea, emakumea
herriko plazan
mundua jarriko dut nik dantzan*

*sasi guztien azpitik
laino guztien gainetik*

*Ni naiz argia. Argia
Ameslaria. Ameslaria
Ni naiz morea. Morea
Emakumea. Emakumeena*

- Uluka taldearen MOREZ abestia abestu eta kantatu:
<https://aiaraldea.eus/komunitatea/Uluka/1481208593921-morez>



Lehen hezkuntzarako ariketak

1 ARIKETA: PATIOAREN ERABILERA

1. ATALA: BEHAKETA

Zuen eskolako patioaren irudia egitera gonbidatzen zaituztegu ariketa honen bidez, norberak erabiltzen duena. Hezitzaileak patioaren plano bat eraman dezake, bestela. Analizatu ditzagun bertan hurrengo kontzeptuak, eta gometxa jarri jendea kokatzen den leketan.

- Non egoten naiz ni gehienetan? (Gometxa gorri handi bat kokatu)
- Non egoten dira nire klaseko neska gehienak? (Lauki berde txikiak kokatu)
- Non egoten dira nire klaseko mutil gehienak? (Lauki hori txikiak kokatu)
- Ni baino nagusiagoak diren mutilak non egoten dira? (Borobil hori txikiak jarri)
- Ni baino nagusiagoak diren neskak non egoten dira? (Borobil berde txikiak kokatu)
- Ni baino txikiagoak diren neskak non egoten dira? (hiruki berde txikiak kokatu)
- Ni baino nagusiagoak diren mutilak non egoten dira? (hiruki hori txikiak jarri)

2. ATALA: HAUSNARKETA

Behin patioaren erabileraren planoak edukita hurrengo taula bete behar da, X jarrita. Taula betetzerako orduan, egunerokotasunean, gehien erabiltzen den eremua hartu kontuan. Egunero ez dugu berdina egiten patioan, baina gehienetan bai. Taula betetzeko gehienetan zelako egoera ematen den azaleratuko da, beraz:

	Adina	Nork hartzen du normalean patioaren erdigunea?	Jolastokian nortzuk geratzen dira bazterrean?	Okupatzen duten espazioa handia al da? (Hala bada, jarri X)	Erabiltzen duten espazioa txikia edo mugatua al da? (Hala bada, jarri X)	Beste generoarekin batera nahasten al dira? (Bai edo Ez erantzun)
Nire adineko neskak						
Neska gazteagoak						
Neska zaharragoak						
Nire adineko mutilak						
Mutil zaharragoak						
Mutil gazteagoak						

GOGOETA BIDERATZEKO GALDERAK

Zergatik kokatzen dira mutilak normalean erdigunean? Eta neskak bazterretan?

Neskek eta mutilek jolas ezberdinak egiten al dituzte? Zeintzuk? Zergatik?

Noiz ikusten da genero bereizketa dagoela jolasten dugunean? Zergatik gertatzen da hau?

Zein jolasek hartzen dute espaziorik handiena?

Nortzuk okupatzen dute patioaren zatirik handiena?

Belarria finduko bagenu, noren ahotsa entzungo litzateke gehiago, mutilena edo neskena?

Jolasaldian egiten ditugun ekintzetan, mutilek edo neskek oihukatzen dute gehiago? Nork okupatzen du espazio handiena bere ahotsarekin?

3. ATALA: EKINTZETARAKO ORDUA

Konpromisoak hartzeko momentua da. Norberak bet egin dezake zerbait egoera iraultzeko. Horregatik behin egoeraren errealitateaz hausnartu ondoren, errealitate hori aldatzeko konpromisoak edo aukerak partekatuko ditugu. Konpromisoak banakakoak izan daitezke, edo taldeka eginikoak.

Hori bai, konpromisoak errealak izatea ezinbestekoa da, askotan pausu txiki askoren batuketak eramaten gaitu urrats handiagoak ematera eta. Beraz errealistak izatea gomendatzen dizuegu.

Konpromisoak finkatu aurretik hurrengo galderei erantzun:

Zer egin daiteke patioko egoera aldatzeko?

Aukerarik dago espazioa beste modu batera moldatu, eta guztiok aukera bera izateko?

Espaziorik handiena konpartitua izan al daiteke, beste ekintza batzuek tokia izateko?

Jolastokiaren erdigunea konpartitua izan daiteke, ekintzarik ez baztertzeko?

Nik, ia beti espazioaren erdigunean eta espaziorik handiena erabiltzen badut, ematen al diet aukera beste batzuei gune hori erabiltzeko beraiek nahi duten jolas edo ekintza egiteko?

Guk, ia beti bazterretan edo gune txikietan bagaude, zerbait egin al dezakegu erdigunea gureganatzeko?

*

(Konpromisoak betetzeko orria 1. ERANSKINA da)

2 ARIKETA: ESTEREOTIPOAK HAUSTEN

Oharra: irakasleak zertarako den eta kokapenik egin gabe gauzatu behar da ondorengo ariketa (zer landuko den esanez gero ez da ondo aterako, ikasleak politikoki zuzenak izango direlako). Dinamika sinplea da: irudi batzuk erakutsiko dizkiegu haurrei, marrazki edo argazkiekin istorio bat sortu dezaten. Hau da, irudian gertatzen ari dena deskribatu behar dute, ahalik eta detaile gehien jarrita.

Ahalik eta detaile gehien zehaztu behar badute ere, burura etorri zaien lehen ideia garatzea eskatuko zaie. Hau da, istorioari buelta gehiegi ez emateko, irudia ikustean burura etorri zaien lehen gauza adieraztea. Segidan, istorioa arrazoitzeke eskatuko zaie; zer eta zergatik ikusi duten adieraztea.

Irakasleak laguntzeko hurrengo galderak egin ahalko ditu:

Zelan deitzen dira?

Zertan ari dira?

Zertaz ari dira hitz egiten?

Zein lanpostu dituzte?

Zenbat urte dituzte?

Botere bereizketarik al dago? Nor da arduraduna? Eta langilea?

IRUDI BAKOITZAREN GOGOETA

*

(Irudiak 2. ERANSKINEAN dituzue)

Burura etortzen zaigun lehenengo gauza, gehienetan ikusten duguna, gure iruditegi kolektiboan dagoena da. Jendartearen iruditegian mailaketa bat baldin badago emakume eta gizonen artekoa, hau irauli beharra daukagu denek eskubide/betebehar/aukera berdinak izateko. Beraz, zu ere gonbidatzen zaitugu burura etorri zaigun hori, parekidea ez bada, haurrekin batera hausnartzeko baliatzera.

1 IRUDIA: FUTBOLA

Futbola normalean gizonekin erlazionatzen dugu. Bi pertsona ikusten baditugu futbolean jolasten, ziurrenik ikasle gehienek mutil izenak jarriko dizkiete. Gainera, dituzten elkarriketak aipatzen badituzte, futbolean egoten diren elkarriketa asko nahiko biolentoak izaten direla ohartarazi daiteke. Futbolak hartzen du normalean espaziorik handiena. Eta, espazioa hain da handia, jokoan ibiltzen diren horiek oihukatu egin behar dutela elkarrekin komunikatzeko, honek espazioa ahotsarekin okupatzea dakarrelarik.

2 IRUDIA: BILERA

Horrelako irudi bat jartzerakoan ikasle gehienek uste dute gizona buruzagia dela, eta besteak langileak. Gainera euren lanbideez galdetuz gero, zaintza lanekin harremana duten ogibideak aterako dira: garbitzaileak, jantokiko hezitzaileak, zaintzaileak, irakasleak...

Posizioez hausnartzen badugu, gizona erdigunean dagoela ikusten da. Baina erdigunean egoteak ez du esan nahi bera besteen gainetik dagoenik.

3 IRUDIA: LANA

Irudi hau ikusita emakume eta gizon bat ikusten du jendeak, dituzten arrokek generoa markatzen dutelako. Lanpostuei dagokionean, normalean uste dute emakumea idazkaria dela, eta gizona bere “jefea”. Ez da aldrebes identifikatzen, emakumeak duen posizioak hori ondorioztatzerara eraman bagaitzake ere. Lehenengo begiradan -eta burura etortzen zaigun hasierako irudia hori da- gainera emakumearen jarreragatik/posizioarengatik idazkari txar baten moduan kokatzen du jendeak.

4 IRUDIA: GENEROA

Gazteek ez dute pentsatuko jendeak arropa hori jartzen duenik kalera ateratzeko. Sarri aipatzen dute txantxa bat egiten dagoela, edo bere bikote heterosexualaren arropa jantzi duela aratusteak direlako. Ia inork ez du adierazten pertsona hori emakume senti daitekeenik, aurpegian bizarra duelako, eta horrek jadanik gizon bilakatzen duelako jendearen iruditegian.

ARIKETA OSAGARRIAK

1. “Vestido nuevo” laburmetraia ikusi eta bertan gertatzen denaren inguruan hausnartu

<https://www.youtube.com/watch?v=LVdfnQPUYLY>

Zeinek erakusten du egoerarekiko jarrera ona? eta txarra? (aipatu zer jarrera on eta txar ikusten diren)

Zenbatek esaten diote horrelako ekintzak pribatuan egitea?

Zenbatek adierazten dute hori euren jarrerarekin? (Ikusi bukaeran aitzak bere txaketaren tapatu egiten duela kalera irteteko)

2. Sokasaltoan aritzeko hurrengo abestia erabili da: “Aita, Ama zenbat urterekin ezkonduko naiz”. Bestelako balio batzuk lantzeko letra aldatu zion Uluka taldeak, Bizkaiko Urtxintxa Eskolak proposatuta. Ikusi “Aizu, aizu!” kanta:

<https://aiaraldea.eus/amurrio/1546171121106-aita-ama-kantaren-bertsioa-egin-du-uluka-taldeak>

Gazteak (DBH, Batxilergoa, Gaztelekuak...)

1 ARIKETA: ROL JOLASA

Denen artean kontzertu bat antolatzen animatuko ditugu gazteak. Jai horrek aurrelanketa behar du: dekorazioa pentsatu eta atontzea, erosketak egitea, musikariak deitzea, gauzak muntatzea (eszenatokia, barra, aulkiak jarri...). Egunean bertan ere lan batzuk egin behar dira (aurkezleak, guztia koordinatu, musikarien zaintza, dena garbitu...)

Asanblada bat egin beharko dute gazteek jai antolatzeko. Egin behar diren lanak zerrendatu eta ardurak euren artean banatu beharko dituzte.

Ariketa egin ostean, hausnartu ondorengo galderak baliatuta:

Zeinek hartu du iniziatiba asanbladan hitz egiterakoan?

Lanen banaketa zeren arabera egin da?

Genero aldetik rol banaketarik nabaritu al da?

Orokorrean, nork hartu du iniziatiba hitz egiteko?

Nork parte hartu du gehiago?

Pertsoniak edo egitekoak aukeratzean zeinek aukeratu du lehen, eta zein geratu da bukaeran?

IRAKASLEARENTZAKO HAUSNARKETA:

Horrelako egoera bat nahiko ohikoa izaten da, denen artean zerbait antolatu behar izatea. Askotan, guk lanak banatu behar baditugu edo ikasleek banatzen baldin badituzte, dekorazio eta apainketa lanak emakumeei egozten zaizkie, ustez beraiek egokiago egingo dutelakoan. Aldiz, pisua garraiatzeko gizonak bilatzen dira.

Asanblada bat egiterakoan gainera, askotan argi ikusten da gizonek protagonismo handiagoa hartzen dutela euren ahotsarekin. Beraiek hartzen dituzte, nagusiki, koordinazio rolak edo protagonismoa ahalbidetzen dituzten eginkizunak. Eztabaidatzeko orduan, gainera, askotan ez dauka garrantzia edo pisu bera gizon edo emakume batek botatako iritzia.

2 ARIKETA: INDARKERIAREN TAULA

Hurrengo taulak indarkeriaren inguruan hausnartzeko balio du. Indarkeria ohikoa eta normalizatutakoa dela ohartzeko balio du ariketak.

Taula norberak egin behar du, ariketa pertsonala da. Denbora mugatua eman taula egiteko, eta ondo analizatzeko beraien egunerokotasuna. Gero nahi duenak (inor behartu gabe) taula erakutsi dezake, inguruan dauden egoeren inguruan hausnartuz.

Indarkeria hain normalizatua dugu, askotan hor agertzen diren ekintza batzuk ez ditugula larritzat jotzen, eta naturaltasun osoz kontatzen ditugu. Irakasleak, egoera hauek duten larritasuna kokatu behar du, eta ikasleentzako txikikeri bat dena dagokion larritasunean azaleratu.

Tarte honetan egiten ditugun “txantxen” inguruan hausnartu daiteke. Broma bat izateko parte guztiek barre egin behar dute, eta ostean ondo sentitu. Baina askotan, pertsona bat iraindua eta lotsatuta sentitzen da. Hausnartu dezagun ea bromak egitean bestearen jarreran fijatzen garen, nola erantzungo duen aurreikusten dugun...

Garrantzitsua da ez bakarrik eragiten dugunaz hausnartzea, baizik eta indarkeria ikusten dugunean gure jarrera zelakoa den ohartzea ere. Zelan jokutzen dugu indarkeria ikustean? Barre egiten al dugu? Beste alde batera begiratzen dugu? Animatzen dugu? Babesten dugu?

Oharren atala, egoerak deskribatzeko erabili daiteke. Baita egoera ikusten dugunean zer egin dugun adierazteko ere.

	Ikusi dut	Eragin dut	Jaso dut	OHARRAK
Indarkeria fisikoa				
Indarkeria psiko-logikoa (irainak, txantaiak...)				
Mehatxuak				
Lapurretak				
Beste norbaiten materialaren apurketa				
Beste norbait gutxietxi				
Publikoan lotsarazi				
...				

3 ARIKETA: ESPAZIOA ETA AHOTSA

Barometroaren dinamika egitea proposatzen da atal honetan. Gela bitan banatuko dugu, BIZI IZAN DUT (bai) eta EZ DUT BIZI (ez). Dinamizatzailerak esaldi batzuk botako ditu, eta parte hartzaileak beraien esperientzien arabera, gelako alde batean edo bestean jarriko dira. Gero, hor zergatik kokatu diren adierazi beharko dute. Nahi izatekotan adibideak eman ditzakete partaideek, edo bizitako egoerak kontatu.

Dinamikaren ostean, hausnartzera gonbidatzen zaituztegu norberak eraikitzen duen generoak esaldi hauetan zerikusirik duen jakiteko:

- *Badago esaldiren bat, ehuneko altuan neskak alde batean eta mutilak beste aldean jarri direna?*
- *Eraikitzen dugun generoaren arabera espazioaren erabilera handiagoa egiten da? Gizonek espazioa gehiago okupatzen dute? (Interesgarria da kasu honetan gazteak borobilean jartzen diren egun batean analizatzea zelan esertzen diren. Izan ere, mutilek askoz ere espazio gehiago okupatu ohi dute (hankak eta besoak zabalik edukiz), eta beste batzuetan besteen espazioa barnehartzen dute. Neskak, oster, askoz ere uzkurituago eseri ohi dira, hankak gurutzatuta eta besoak hanken gainean jarrita.*
- *Generoaren arabera, bakoitzaren iritzia berdin balio duela sentitzen al dugu beste ikaskideentzako? Eta irakaslearentzako?*
- *Ardura banaketa berdina egiten da?*

LANTZEKO ESALDIAK

- “Askotan egin nahi nuen zerbait egin gabe geratu naiz, norbaitek sotilki egokia ez zela aditzera eman didalako”
- “Bikotea daukat/nuen. Momenturen batean elkarrekin ondo bagaude (harremana ondo badoa) elkarrekin bizitzera joango garela/ginela pentsatu dut”
- “Bikote harremanean, eztabaidetan, gero eta ahulago sentitzen naiz”
- “Askotan sentiarazi didate pentsatzen nuena (nire burutazioa) erokeria edo tontakeria bat dela”
- “Ez eztabaidatzearen, besteak nahi zuena egin dut askotan, nahiz eta nik gogorik ez izan”
- “Askotan bikote edo gainerakoekin egotearen artean aukeratu beharra sentitu dut”
- “Nire ahotsa beste batzuen baimo gutxiago entzuten dela sentitzen dut”
- “Treanean, autobusean edo klasean borobilean jartzen garenean ondokoak espazio gehiegi okupatzen duela sentitu dut, eta ni espazio gutxiago okupatzera behartu nau”
- “Jolastokian ezin dut erdigunean egin gustuko dudana” (Adibidez futbol zelaiaren erdian esku jolasean aritzea)
- “Beldurra sentitu dut nire iritzia esaterako orduan, besteek txorakeria dela usteko dutelako”
- “Nahi ez nuen momentuan edo nahi ez nuen pertsonak, nahi ez nuen lekuren baten ukitu egin nau”
- “Gauetz etxera joateko estrategia ezberdinak ditut, beldurrik ez izateko”
- “Ardurak hartzerakoan beti uste dut beste batek nik baino hobeto egingo duela”

ARIKETA OSAGARRIAK

Matxismoa nonahi agertu daiteke, aztertu ditzagun ikasgaietako materialak. Gonbitea egiten dizuegu eskolako liburuak hartzera, lantzen diren gaiak aztertzeraz eta emakumeen erreferentzia eza (edo gutxitua) dauden irakasgaiak identifikatzera.

Aztartzeko adierazleak:

- Genero rol estereotipatuak birproduzitzen dira testuetan edo irudietan? (Adibidez, matematikako problemetan emakume izena ageri da ia beti zaintza lanetan eta gizonen izena lan produktiboetan edo kiroletan? Historiako liburuetako irudietan edo testuetan emakumeak zaintza lanetan agertzen al dira (eta gizonak ehiza bezalako lan produktiboetan)?
- Emakume zientzialariak azaltzen al dira testu liburuetan?
- Emakume filosofoak landu egiten dira filosofia arloan?
- Gorputz hezkuntzan genero bereizketarik egiten al da ariketetan? Marka ezberdinak eskatzen zaizkie gizon edo emakumei?
- Historian lantzen al dira emakumeak? Zer nolako presentzia daukate, bigarren mailan daude edo protagonista moduan agertzen dira? (aztertu historia liburuetako irudiak eta testuak)
- Literaturan, jorratzen al dira emakumeen testuak? Emakume sortzaileen lanen testu komentarioak egiten dira?

Kartel bat egin irakasgai horiek identifikatuz eta ikusgarri jarritz, bai gelako atean zein gela barruan.

*

(Kartelaren eredua gero 3. ERANSKINA da).



ERANSKINAK



1. Eranskina

ZER NAGO EGITEKO PREST EGUNGO EGOERA ALDATZEKO?

*Nik (izen-abizenak)k,
(eskolako izena).....ko eskolako ikasleak, gure
ikastetxeko espazioen erabilera desegokia ikusita, jendarte parekideago bat lortzeko,
hurrengo konpromisoak hartzen ditut aurtengo ikasturterako:*

-
-
-
-
-
-
-
-
-

Konpromiso hau betetzeko borondatea adierazteko, dokumentu hau sinatzen dut

SINADURA

DATA

*Pertsona guztien eskubide, betebeharrak eta aukeren berdintasuna
borrokatzen jarraituko dugu!*

2 Eranskina

1



3



2



4



MATXISMOA SUNT SITUZ

Irakasgai
hauetan
eduki
MATXISTAK
daude

AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TO-
RIA**

**FEMINISMOAK
ERAIKI**



BESTELAKO BALIABIDEAK

BIDEOAK

1.

Matxismo ezkutua tabernan eta kotxearekin
ikusteko bideoa

<https://www.youtube.com/watch?v=IfI6QYKc-IE>

2.

Komunikabideak eta publizitatea

<https://www.youtube.com/watch?v=IDLrL7VoTfE>

3.

Patriarkatuaren definizio bat

<https://www.youtube.com/watch?v=1HIITW3IIK0>

4.

Etxeko lanen banaketa

<https://www.youtube.com/watch?v=g039Z-4hiqs>

5.


Harremanak eta jeloskortasuna

https://www.youtube.com/watch?v=_wgZaN04twQ&t=15s

6.

Neska bat bezala korrika egitea

<https://www.youtube.com/watch?v=s82iF2ew-yk>





ESKOLAN LANTZEKO ARTIKULU INTERESGARRIAK

1.

<https://aiaraldea.eus/orozko/1542703650544-argine-rodriguez-rivas-zeintzuk-dira-nesken-jolasak-eta-mutilenak>

2.

<https://aiaraldea.eus/aiaraldea/1563363439280-eskuak-nola-sartu-zizkidan-gogoratzen-dut-gertatutakoa-larria-da-sexu-erasoa-da>

3.

<https://aiaraldea.eus/aiaraldea/1562928417568-analisisa-matxismoa-festen-aparran>

4.

<https://aiaraldea.eus/orozko/1553174499327-emakume-erasotuak-sexu-erasoak-salatzea-elkar-babestea-da>

5.

<https://aiaraldea.eus/okondo/1542813720063-emakumeak-eskela-direnean-soilik-doaz-lerroburuetara>
[orozko/1553174499327-emakume-erasotuak-sexu-erasoak-salatzea-elkar-babestea-da](https://aiaraldea.eus/orozko/1553174499327-emakume-erasotuak-sexu-erasoak-salatzea-elkar-babestea-da)

5.

<https://aiaraldea.eus/okondo/1542813720063-emakumeak-eskela-direnean-soilik-doaz-lerroburuetara>



Dosier hau Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren Hezkuntza ildoak (Kokoriko Hezkuntza Faktoria) eta Feminismo ildoak batera garatu dute. Eskerrak eman nahi dizkiegu modu boluntarioan dossier hau egiten parte hartu duen orori. Zuen ikastetxean edo herrian indarkeria matxistaren inguruko dinamizazioak kontratatzeko edo dossier hau irakasle, familia zein ikasleekin gehiago garatzeko jarri Kokoriko Hezkuntza Faktoriarekin harremanetan:

ARITZ LILI LEKANDA

693 85 53 12

hezkuntza@aiaraldea.eus

